



ZER DIRA DANTZAKO ARTE IRAKASKUNTZAK?

Dantzako arte-irakaskuntzak erregimen berezikotzat jo ditu LOGSEn zehaztutako hizkuntza-sistemak, eta bi helburu nagusi dituzte: kalitatezko prestakuntza eskaintzea ikasleei, eta etorkizuneko dantza-profesionalak prestatuta egongo direla bermatzea.

Irakaskuntza hauek ez dira derrigorrezkoak, eta kontserbatorio edo musika-eskoletan egin daitezke, ikaslearen nahien eta interesen arabera.

Dantzaren irakaskuntza arautua profesionalak izan nahi dutenentzat pentsatuta dago, beraz, ikasketok lan munduan aritzeko prestakuntza eskaini nahi dute. Ikasketa horiek kontserbatorioetan, baimendutako zentroetan, egiten dira eta titulazio ofiziala dute. Laburbilduz, gaitasuna eta borondatea erakusten duten ikasleei zuzenduta daude, irmotasuna eta bokazioa eskatzen baitute.

Zale moduan jardun nahi dutenek, berriz, musika eta dantza eskoletan ikas ditzakete musika eta dantza, egitura eta edukien aldetik irakaskuntza ez arautuaren bidez. Eskola horietan ematen diren ikasketek ez dute balio akademiko ofizialik, eta zaleak prestatzera bideratuta daude, adin-mugarik gabe, baita diziplina horiek gazte-gazterik jorratzen hastera ere, bokazioak eta gaitasunak aurkitzeko, gerora irakaskuntza profesionaletara bidera daitezke eta.

	KONTSERBATORIOAK ETA IKASTETXE BAIMENDUAK	MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA
Irakaskuntza mota	Irakaskuntza arautua	Irakaskuntza ez arautua
Helburua	Profesionalak prestatzea	Zaleak prestatzea eta bokazioak eta gaitasunak aurkitzea
Titulazioa	Lanbide-titulu akademikoa	Diploma, ziurtagiriak

DANTZA IRAKASKUNTZA ARAUTUEN ANTOLAMENDUA

Irakaskuntza hauen helburua da dantza-prestakuntza ziurtatzea, lanbidean aritzea helburu duten ikasketa espezializatuek ematen duten adierazpen artistikoaren mailara iristeko moduan; horretarako prestakuntzak, beraz, lan-munduaren eskakizunei egokitu nahi zaie, baita ondokoak bermatu ere: teknika eta gorputz-garapena ezagutzearen alorreko prestakuntza sendoa, baita dantzari —fenomeno historiko eta kultural, estetiko edo psikologiko den aldetik— dagozkion alderdien alorrekoa ere.

Dantzaren irakaskuntza hiru mailatan antolatuta dago ikastetxe horietan:

- A) **Oinarrizko maila**, lau urte irauten duena.
- B) **Erdiko maila**, bina kurtsoko hiru ziklotan antolatua.
- C) **Goiko maila**, lau urte irauten duen zikloa.



A) OINARRIZKO MAILA

Oinarrizko mailaren prestakuntza-helburua da ikaslearen autonomia sustatzea, bere adierazmenak beharrezko kalitate artistikoa iritsi dezan, erdiko mailan dagokion espezialitatera sartzeko moduan egon dadin.

Dantzako oinarrizko maila gainditzeak bide ematen du maila hori egin izanaren **ZIURTAGIRIA** eskuratzeko.

Zein da sarbidea?

Oinarrizko mailara sartzeko proba batzuk egin behar dira, ikasketak egingo diren zentroan bertan. Proba horiek gainditzeko gutxieneko maila eskatuko da entzumen, erritmo, gaitasun, heldutasun eta abarretan. Adinari dagokionez, gutxienez zortzi urte eduki behar dira oinarrizko maila horretara sartzeko, eta hamalau gehienez, urte naturalean beteak edo betetzekoak.

Dantzaren oinarrizko mailaren egitura

Curriculumak bi gai nagusi hartzen ditu: dantza klasikoa eta musika. Lehen ardatz nagusia da, bizkarrezurra, geroko espezializaziorako beharrezko prestakuntza ematen duena. Bigarrena ere funtsezko diziplina da oinarrizko prestakuntzan, ikasketako lehen urteetatik egin behar baitituzte ikasleek musikan eta dantzan txertaturiko ikasketa. **Urriaren 27ko 287/1992 Dekretuak** garatu du oinarrizko mailaren curriculumua EAEn (**EHA**, 1992/12/28).

Irakasgaia	Asteko denbora (minututan)
<i><u>Lehen kurtsoa</u></i>	
Dantza klasikoa	240
Musika	60
<i><u>Bigarren kurtsoa</u></i>	
Dantza klasikoa	360
Musika	60
<i><u>Bigarren kurtsoa</u></i>	
Dantza klasikoa	480
Musika	60
<i><u>Laugarren kurtsoa</u></i>	
Dantza klasikoa	600
Musika	60



B) ERDIKO MAILA

Erdiko maila bina kurtsoa hiru ziklotan antolatzen da: lehen zikloa, bigarren zikloa eta hirugarren zikloa, hurrenez hurren. Bigarren Hezkuntzako ikasketekin batera egin daiteke. **2004ko abenduaren 3ko Aginduak (2005/01/04 EHAA)** arautu du Bigarren hezkuntzako ikasketak erdi-mailako musika eta dantza-irakaskuntza artistikoekin batera egin ahal izateko neurriak:

Dantzako erdiko maila gainditzen duten ikasleek egin duten espezialitateko lanbide-titulua eskuratuko dute. Gainera, erdiko mailako hirugarren zikloa eta Batxilergoko irakasgai komunak gaindituz gero, batxiler-titulua ere eskura daiteke.

Zein da sarbidea?

Maila ertaineko ikasketak egin ahal izateko ez da derrigorrezkoa oinarriko maila egina izatea; berariazko sarbide-proba gainditu behar da, ordea. Ildo beretik, erdiko mailako lehen zikloko beste kurtsoen batera sartzeko aukera ere badago, **berariazko proba** gaindituz gero.

Dantzako erdiko mailaren egitura

Dantzako erdiko mailak ondoko hiru espezialitateak ditu:

- Dantza klasikoa
- Dantza garaikidea
- Dantza espainola

Dantza klasikoa da Euskal Autonomia Erkidegoan ematen den espezialitate bakarra.

Honako hauek dira dantza-irakaskuntzen erdiko maila osatzen duten espezialitateetako irakasgaiak:

- a) Espezialitate guztietarako irakasgai komunak:
 - Dantzari aplikaturiko anatomia.
 - Dantzaren historia.
 - Musika.
- b) Espezialitate bakoitzeko berariazko irakasgaiak. Dantza klasikoari dagozkionak:
 - Dantza klasikoa.
 - Dantza garaikidea.
 - Musika.
 - Errepertorioa.
 - Binako pausoa.

Zikloak	1. kurtsoa		2. kurtsoa	
	Irakasgaiak	Asteko orduak	Irakasgaiak	Asteko orduak
Lehena	Dantza klasikoa	13	Dantza klasikoa	13
	Karaktere dantza	3	Karaktere dantza	3
	Musika	1	Musika	1



Zikloak	1. kurtsoa		2. kurtsoa	
	Irakasgaiak	Asteko orduak	Irakasgaia	Asteko orduak
Bigarrena	Dantza klasikoa	15	Dantza klasikoa	15
	Dantza garaikidea	2	Dantza garaikidea	2
	Musika	1	Musika	1
	Errepertorioa	1,5	Errepertorioa	1,5
	1. kurtsoa		2. kurtsoa	
Hirugarrena	Irakasgaiak	Asteko orduak	Irakasgaia	Asteko orduak
	Dantza klasikoa	10	Dantza klasikoa	10
	Dantza garaikidea	3	Dantza garaikidea	3
	Binako pausoa	2	Binako pausoa	2
	Errepertorioa	7,5	Errepertorioa	7,5
	Dantzari aplikaturiko anatomia	1	Dantzari aplikaturiko anatomia	1
	Dantzaren historia	1	Dantzaren historia	1
	Musika	1	Musika	1
	Interpretazioa (aukerakoa)	1	Interpretazioa (aukerakoa)	1
	Dantza tradizionala (aukerakoa)	1	Dantza tradizionala (aukerakoa)	1

Dantzako erdiko mailako ikasketak amaitzean zer?

Anitz eta era askotakoak dira ikasketa hauek amaitzerakoan aurki daitezkeen irtenbide profesionalak; horien artean aipa daitezke:

- Irakaskuntza: musika eta dantza eskoletako irakasle.
- Interpretazioa: dantzari.

C) GOIKO MAILA

Titulazioa:

Dantzako goi-mailako ikasketak amaitzean espezialitateko goi-titulua eskuratzen da, eta unibertsitate-lizentziadunaren baliokidea da, ondorio guztietarako.

Dantzako goi mailak ondoko espezialitateak hartzen ditu:

- Dantzaren pedagogia
- Koreografia eta dantza-interpretazioaren teknikak

Zein da sarbidea?

Ondokoak bete beharko dira goiko mailara sartu ahal izateko:

Batxiler-titulua izatea, erdiko mailako hirugarren zikloari dagozkion ikasketak gaindituta izatea, eta sarbide-proba gainditzea. Nolanahi ere, ikasleek sarbidea irekita egongo dute, gorago aipatu diren betebeharrak akademikoetako bat edo biak bete gabe ere, sarbide-proba gaindituz gero,



eta berariazko ariketa baten bidez frogatuz gero erdiko mailari dagozkion ezagutza eta gaitasun guztiak dituztela, baita eskatutako espezialitatea atarramentu onez egiteko behar diren trebeziak ere.

Dantzako erdi- edo goi-mailako ikasketak amaitzean zer?

Anitz eta era askotakoak dira ikasketa hauek amaitzerakoan aurki daitezkeen irtenbide profesionalak; horien artean aipa daitezke:

- Irakaskuntza: irakasle kontserbatorioetan, musika- eta dantza-eskoletan.
- Sorkuntza: koreografo, dantza-taldeko zuzendari,...
- Interpretazioa: dantzari
- Ikerketa
- Bestelako irtenbide profesionalak: dantza-kritikari, ...

DANTZA IRAKASKUNTZA ARAUTUAK EMATEN DITUZTEN ZENTRO BAIMENDUAK

- **Udalaren Erdi Mailako Dantza Kontserbatorioa: “José Uruñuela”**
Hiru probintzien plaza, 8
01002 VITORIA-GASTEIZ
TEL.: 945 16 26 06 – e-mail: conservatoriodanza@vitoria-gasteiz.org
- **Oinarriko Mailako Dantzako Baimendutako Ikastegia. “ARTEBI”**
Jon Arrospide, 14
48014 BILBAO
TEL.: 944 75 85 33 – e-mail: artebilbao@terra.es